

## **77. FITXA. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei zuzendutako dirulaguntzak, ikastetxe publikoetan Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura-gastuak finantzatzeko, Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.**

**Nori zuzenduta:** Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte Haur Hezkuntzako lehen zikloko haur-eskolen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiek eta Haurreskolak Partzuergoari atxikita dauden Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, baldin eta Haur Hezkuntzako lehen zikloko titulartasun publikoko plaza berriak sortzeko azpiegitura-gastuak finantzatu badituzte, 2021eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean.

**Sartzeko esteka:** <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

**Erreferentziazko arauak:** [AGINDUA, martxoaren 19koa, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak emateko dena, ikastetxe publikoetan Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura-gastuak finantzatzeko, Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan \(Next Generation EU\).](#)

**Eremuak:** Ikastetxe publikoetako Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura.

**Zenbatekoa:** 10.000.000 € (% 40, 2024rako, eta % 60, 2025erako)

**Aurkezteko amaiera-data:** 2024/05/02

## **Laburpena**

Laguntza honen xedea da Haur Eskolen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta Haurreskolak Partzuergoarekin hitzartutako udalei laguntzak ematea, 2021eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean, Haur Hezkuntzako lehen zikloko titulartasun publikoko plaza berrien azpiegitura-gastuak finantzatzeko.

## **Laguntzaren xedea**

Programaren azken xedea da hurrek Haur Hezkuntzako lehen zikloan plaza irisgarria, eskuragarria,

inklusiboa eta kalitate handikoa izateko duten eskubidea zabaltzea, Haur Hezkuntzako lehen zikloan titulartasun publikoko plaza berriak sortuta (batez ere, 1 eta 2 urtekoentzat).

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko Kontseiluaren exekuzio-erabakiak (Council Implementing Decision-CID) ezartzen duenaren arabera, honako hau da CID helburua: «309. helburua»: Haur Hezkuntzako lehen ziklorako plaza berriak sortzea. Deskribapena: Haur Hezkuntzako lehen zikloa sustatzea, titulartasun publikoko plaza berriak sortuta (eraikin berriak edo zaharberritzea/birgaitzea eta ekipamendua, gutxienez, 60.000 plazatan —2020 amaierarekin alderatuta—, eta gastu operatibo horietatik, gehienez, 40.000 plaza, 2025era arte).

## Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundutako jarduketa guztiek diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzun behar diote, eta behar-beharrezkoak izan behar dira 0-3 urteko Haur Hezkuntzako plaza berriak sortzeko. Gainera, ez dira urratu behar azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuan ezarritako betekizunak. Dekretu horren bidez, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri ziren, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulua batzuk indarrean iraunarazi ziren (2., 3., 4., 5., 6. eta 11. artikulua eta lehen, bigarren, hirugarren, seigarren eta zazpigarren xedapen gehigarriak). Azken Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan.

Programan diruz lagundu daitezkeen jarduketa honako hau izango da:

- **Azpiegitura: unitate (gela) berrietarako eraberritzea/birgaitzea, hezkuntza-ziklo honetako ikasleen hezkuntza-premietara egokitzeko eraberritzea/birgaitzea eta obrak behar dituzten ikastetxeen eraikinetatik abiatuta, edo gelak eraikitzea;** haur-eskola berriak eraikitzea, Haur Hezkuntzako 1. zikloan (0-3 urte), administrazio autonomikoaren zein tokiko administrazioaren titulartasun publikoko zentroetan.

## Laguntzen zenbatekoa eta laguntza motak

Dirulaguntza emateko, **lehiarik gabeko konkurrentzia**-prozedura erabiliko da, betiere publikotasunaren, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatzen badira.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 18.000 eurokoa izango da sortutako plaza berri bakoitzeko, baldin eta horretarako kreditu nahikoa badago aurkeztutako eskabide guztiei erantzuteko, onuradunen eta sortutako plazen kopuruaren arabera.

## Gastuen aldi hautagarria

Deialdi honen bidez finantza daitezkeen jarduketek eta gastuen hautagarritasunak 2021eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arteko exekuzio-epea izango dute.